

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko MAIATZAREN 11an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko maiatzaren 11an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbietta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/
Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2017ko apirilak 6an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 6 de abril de 2017.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.
3. 2017 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de las solicitudes de bonificación en las tasas para el ejercicio 2017.
4. Tolomendiri 2017 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica a Tolomendi correspondiente al ejercicio 2017.
5. Larraulgo Udala, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko espaziora atxikitzea, hala bada./ Acuerdo de adhesión del Ayuntamiento de Larraul al espacio interinstitucional de participación ciudadana del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
6. Ostatu Zahar etxeke garaje batean baldosa jartzeko obra baimena eskaera, M.C.G./Solicitud de licencia de obras para colocar baldosa en un garaje de Ostatu Zahar etxea, M.C.G.
7. Herriko jaien antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica correspondiente para la organización de las fiestas patronales, modalidad gastos a justificar.
8. Aste kulturalaren antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica para la organización de la semana cultural, modalidad gastos a justificar.
9. Kirol astearen antolaketarako ekarpena burutzea, justifikatzeke ekarpena modura, hala bada./Aportación económica para la organización de la semana deportiva, modalidad gastos a justificar.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. Danena Txirrindularitza Elkartearen eta Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalen artean Lankidetzeta-hitzarmenaren onespena, Neska txirrindularien Sari Nagusia antolatzeke./ Aprobación del convenio de colaboración entre el Danena Txirrindularitza Elkartea y los Ayuntamientos de Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona y Zizurkil, para la organización de "Neska txirrindularien Sari Nagusia".
11. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
12. Beste batzuk/Otros.
13. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko apirilaren 6ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2017 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 18koa, Maderas Garmendiari 1.610,92 eurotako abala bueltatzea, ebazten duena.

07/2017 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 25koa, 2017ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

08/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 2koa, 2018 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala abuztuaren 3a finkatzea, ebazten duena.


09/2017 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 11koa, 2017ko apirilaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako diru-laguntza programan sartzea, Zizurkil, Asteasu eta Adunako udalekin elkar eginda, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

2017 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2017 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 28arte (biak barne).



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, aipaturiko epean eskaera bakarra aurkeztu zela.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-C.G. andreari ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

LAUGARREN PUNTUA

TOLOMENDIRI 2017 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2017ko apirilaren 20an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2017. Urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalari 1.771,90 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DUTE:


LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.771,90 eurotako ekarpena burutzea 2017 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko, udal aurrekontuetako 422.410.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 1.771,90 eurotako gastua onestea.

BOSTGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ERAKUNDE ARTEKO ESPAZIORA ATXIKITZEA, HALA BADA

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak sare bat sortu duela herritarren partaidetzarako politikak sustatzeko helburuarekin. Erakundeak eta herritarren partehartzea sustatu eta aldi berean espazio bat sortu nahi da elkarrekiko ikaskuntza egiteko arlo honetan.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari atxikitzea eskatzen digu. Atxekimenduak sopsosatuko digu (Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak beregain hartzea):

- a) Arlo politikoan nahiz teknikoan modu aktiboan parte hartzea Espazioko organo edo egituretan esleitutako pertsonen bitartez.
- b) Espazioaren funtzionamendua sustatzea, proposamenen eta ekimenen bitartez.
- c) Foru Aldundiak, tokiko erakundeen mesedetan, sustatuko dituen herritarren partaidetza arloko diru-laguntzen lerroei buruzko iritziak definitzeko eta zehazteko prozesuetan parte hartzea eta eztabaidatzea, betiere Espazioko organo edo egitura eskudunen bitartez.
- d) Proposatzea partaidetzarako programa zehatzak, prestakuntza programak, topaketak, mintegiak eta prestakuntzako beste hainbat jarduera, Espazioko organo edo egitura eskudunek eztabaidatu eta onartu ditzaten.
- e) Gida metodologikoak eta herritarren partaidetzarako onuragarriak izango diren beste edozein baliabide edo tresna proposatzea, bereziki partaidetzazko aurrekontuen ereduak eta estrategiak diseinatzea.
- f) Espazioan ezartzea partaidetza alorreko praktika onak, bertan parte hartuko duten erakundeen ezagutza handitzeko eta herritarren partaidetzako foru, udal eta tokiko erakundeen politikak hobetzeko.


Gaia azterturik, Udalbatzak, aho-batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA: Onartzea Larraulgo Udala atxikitzea, Foru Dekretuak sortzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren partaidetzarako erakunde arteko Espazioari.

BIGARRENGOA: Onartzea eta beregain hartzea Foru Dekretuak bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren arabera zehaztutako konpromisoak.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Herritarren Partaidetzarako Erakundearen arduradunei.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SEIGARREN PUNTUA

OSTATU ZAHAR ETXEKO GARAJE BATEAN BALDOSA JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, M.C.G.

Ikusirik M.C.G. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Ostatu Zahar etxeke garaje batean baldosa jartzeko obra baimena eskaera egiten duen, horretarako aurrekontu bat aurkezten du, eskaera baimenari atxikitzen zaiona.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.C.G. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Ostatu Zahar etxeke garaje batean baldosa jartzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

HERRIKO JAIEN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA

Ikusirik, herriko jaien antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeke kultur zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Cristian Pizarro zinegotzia izango da.

Ikusirik, herriko jaien antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.


Ikusirik, 2017 udal aurrekontuetan 226.338.00.06 partidaren herriko jaiak antolatzeko 7.000,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2017 urteko herriko jaien antolaketa finantzatzeko, 7.000,00 eurotako dirukopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeke ekarpen modura. Dirukopuru honen arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango delarik.

BIGARRENA: 7.000,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.338.00.06 partidaren kargura.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakinaraztea, herriko jaiak bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

ZORTZIGARREN PUNTUA

ASTE KULTURALAREN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA

Ikusirik, azaroan egiten den aste kulturalaren antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeko kultur zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Cristian Pizarro zinegotzia izango da.

Ikusirik, aste kulturalaren antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.

Ikusirik, 2017 udal aurrekontuetan 226.330.00.06 partidaren aste kulturala antolatzeko 2.500,00euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2017 urteko aste kulturalaren antolaketa finantzatzeko, 2.500,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeke ekarpen modura. Diru-kopuru honen arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango delarik.

BIGARRENA: 2.500,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.330.00.06 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakinaraztea, aste kulturala bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

KIROL ASTEAREN ANTOLAKETARAKO EKARPENA BURUTZEA, JUSTIFIKATZEKE EKARPENA MODURA, HALA BADA

Ikusirik, maiatzaren 15etik 21bitartean egingo den kirol astearen antolaketa Kultur batzordeak egiten duela. Bertan, Udaletxeko kultur zinegotzia parte delarik, legealdi honetan Cristian Pizarro zinegotzia izango da.

Ikusirik, kirol astearen antolaketarako, premia duten hainbat gastu aurreratu behar direla.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik, 2017 udal aurrekontuetan 226.341.00.01 partidari kirol astea antolatzeko 1.000,00euro aurreikusitako diruak.

Gaia aztertuz, Udaltza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: 2017 urteko kirol astearen antolaketa finantzatzeko, 1.000,00 eurotako diru-kopuruaren ekarpena burutzea Kultur Batzordeari, justifikatzeko ekarpen modura. Diru-kopuru honen arduraduna Cristian Pizarro Kultur zinegotzia izango delarik.

BIGARRENA: 1.000,00 eurotako gastua onestea, udal aurrekontuetako 226.341.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA: Cristian Pizarro Kultur zinegotziari jakinaraztea, kirol astea bukatuta, hilabeteko epea izango duela, Udaletxe honek egindako diru ekarpenaren frogagiri guztiak aurkezteko.

HAMARGARREN PUNTUA


DANENA TXIRRINDULARITZA ELKARTEAREN ETA ALKIZA, ADUNA, ASTEASU, LARRAUL, VILLABONA ETA ZIZURKILGO UDALEN ARTEAN LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, NESKA TXIRRINDULARIEN SARI NAGUSIA ANTOLATZEKO

Ikusirik Danena Txirrindularitza elkarteak auzkezturiko hitzarmena, non Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udaleekin lankidetzaren hitzarmen bat sinatu nahi duela neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko. Nesken kirola sustatzeko helburua nagusia izanda, neska kirolariei goi mailako proba bat eskaini nahi diete eta gaztetxoek kirolaren erreferentzia bertatik bertara ezagutu dezaten.

Aipaturiko hitzarmenak sei urteko iraupena izango du eta bailarako herri txikiak eta lasterketa bertatik pasatzen ez bada ere, Larraulgo kasua izango zen, lasterketa egingo den asteburuan umeekin ekintzak antolatuko dituzte. Aipaturiko antolaketarako 500,00 euroko ekarpena egin beharko luke Larraulgo Udalak.

Gaia aztertuz, batzarkideek ez dute argi ikusten hitzarmenean jasotako puntu guztiak, horregatik hitzarmenaren onespena gaia hobeto aztertu arte mahai gainean uztea erabakitzen dute.

Hala ere, Danena Txirrindularitza elkartearekin eta Alkiza, Aduna, Asteasu, Villabona eta Zizurkilgo udaleekin hitzartu du Angel Serrano Kiroletako zinegotziak 2017 urtean aipaturiko neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko Larraulgo Udalak 500,00 eurotako ekarpena burutuko duela.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Danena Txirrindularitza Elkartearen eta Alkiza, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo udalen arteko Lankidetzeta-hitzarmenaren onespena mahai gainean uzatea, neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko, gaia argitu bitartean.


BIGARRENA: Danena Txirrindularitza Elkarteari 500,00 eurotako ekarpena burutzea, 2017 urtean neska txirrindularien sari nagusia antolatzeko.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Danena Txirrindularitza Elkarteari erabaki hauen berri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

PASKIN	151,25
JOXAN ALTUNA	289,92
BERRI LANTEGIA	154,34
IZFE	6,20
CASER	461,11
AITZOL	32,48
BERRI LANTEGIA	79,00
TOLOMENDI	152,50
EBA ERKIZIA	477,66
ALKIZAKO UDALA	643,36
ZU ETA BOK	438,17
SANIPLAST	150,26
KIROLZER	65,75
IZFE	1.950,28
GARRA	544,50
BERRI LANTEGIA	44,08
AKETEGI	43,80
CORREOS	0,97
DIONISIO ORMAZABAL	448,92
NATURGAS ENERGIA	113,40
NATURGAS ENERGIA	159,59
IBERDROLA	164,81
IBERDROLA	162,02
IBERDROLA	79,98



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

IBERDROLA	251,84
IBERDROLA	32,29
MOVISTAR	18,01
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	68,06

Udalbatzarrak aho batez hurrengo,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **7.316,28** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMABIGARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

12.1. D-7 ERANSKINAREN ONESPENA.-GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAN JASOTAKO DATUEN KONTSULTA.

Ikusirik Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuragarri jarri duela, D-7 Eranskina, non Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta egin daiteken. Dokumentu honen sinadura, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoak Lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzaren baitan legoke.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo


ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- D-7 Eranskinaren onespena, bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta egin daitekeen.

BIGARRENA.- Alkate-Lehendakaria den Aneli Urbieta Etxeberria andrea ahalmenu, aipaturiko D-7 Eranskina sinatzeko.

HIRUGARRENA.-Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuari ematea.

12.2. "AIZTONDOKO MASKARADAK" ANTOLAKETAN PARTE HARTU DUEN LANTALDEARI ESKER ONA.



LARRAULGO UDALA


(GIPUZKOA)

Larraulgo udalak, "Aiztondoko Maskaradak" antolaketan parte hartu duen Lantaldeari bere esker ona adierazi nahi dio, maiatzaren 5,6 eta 7ko asteburuan burutu dituzten ekitaldi guztiak posible ahal izateko egin duten lanagatik.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.00 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.



IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA